

# Gabriel Aresti Eibarren

Pedro Alberdi

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
2000



Zumaiaiko Udala

*emskar  
txanpau*



# Gabriel Aresti Eibarren

Pedro Alberdi

Julene Azpeitia 13. ipuin lehiaketa

2000

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Pedro Alberdi (ipuinarena)

© Zumaiko Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Nora hoa, Gabriel Aresti, gabardina txuri horretan bilduta eta gorbataren korapiloa dagoeneko laxaturik, Bilbotik goizeko lehenengo trenean iritsi berri, Eibarko Estaziño kalean barrena ibiltari, bertako beharginak oraindik nagiak ateratzen ari diren garagarriko astelehen oskarbi honetan? Ez al zaik oraindik damutu Rocandioneko tailer malapartatu horretan enplegatu izana? Ez? Zergatik hoa, bada, kopetilun? Agian ezin duk burutik kendu Nerea hire alaba nagusiak gaur eskolara joan gabe geratu beharko duela sukarragatik? Edota ez duk hire alabaren sukarra, baizik eta biharamunaren zama, begitartea iluntzen diana? Izan ere etxetik irteterakoan bi aspirina irentsi eta trenean denbora guztian lozorroan etorriagatik, ezin duk ajea disimulatu. Begi-zulo horiek igande trumiltsua salatzen ditek. Non ibili hintzen atzo, La Concordian akaso? La Concordiako tertuliak: asko hitz egin eta gehiago edan. Itxuraz, intelektual antifrankisten biltoki; zinez, lagun hurkoa larrutzeko eginahalen eszenatoki. Haserretu egiten haiz, Gabriel Aresti, horrelako gauzak entzunda? Jakina, hik oraindik gizonaren ontasunean sinesten duk. "Ni gizonaren alde nago. Seguru nago gizona ere nire alde dagoela". Oso ondo. Oso polita. Baina Meli batek, bere ignorantzian, hik baino askoz gehiago zekik gizonaz, eta aspaldi utzi zioan hirekin La Concordiara joateari. Nahiago dik dudarik gabe zuen hiru alaba txiki horiekin geratu, ematen duten lanarekin, tertuliako txutxumutxu gupidagabeak entzutea baino. "Liztorren kabia" harako hark esango zukeen bezala.

Ibarrecruz-a heldurik, une batez, Arragüetatik okertu eta lanera joatekotan egon bahaiz ere, laster kendu duk asmo hori burutik. Izan ere iltzeak dauzkak buruan sastaka. Hobe lanera baino lehen ostatura hurreratu, maleta laga eta beheko tabernan taza bat kafe bero hartzea. Ez zagok kafea bezalakorik ajea kentzeko. Bestalde ez duk komeni lantegira goizegi ailegatu eta ugazaba gaizki ohitu dadin, nahiz horretarako arriskurik ez egon Rocandio baldar horrekin. Komunista izandakoa, militantziak ez dik beragan hitz-jarioa beste lorratzik utzi. Gainera, bere zabarkeria ezkutatu ordez, hirekin hitz egiten duenean beti saiatzen duk hizketaldiak halako maila bat izan dezan. Alde batetik ulertzekoa duk haren jokaera, zeren betidanik jakin izan baitik hi Euskaltzaindikoa hintzela, Juanito San Martinek esanda ziurrenik, ez dituk ba alferrik biak eibartarrak eta biak adin bertsukoak. Beste alde batetik txikitzen akolito izana nonbait, haren hitz egiteko moduak Agirre Asteasukoaren sermoiak gogorazten dizkik batzuetan, Leninen aipuak bestetan, eta ekonomia neoliberalerako eskuliburuak beste zenbaitetan. Plaza aurretik pasatzerakoan, ugazabak laneko lehen egunean esandakoa etorri zaik burura:

—Aresti jauna, zu Bilbora ohitua zaude eta ez dakizu hemengo berri. Nik esango dizut. Eibarren ofizinetako jendea beharginak baino ordubete beranduago sartzen da lanera, bai goizean bai arratsaldean. Ordu gutxiago sartu eta gehiago kobratu. Tailerretako aristokratak dira, nolabait esateko. Beharginek bekaitzez begiratzen diete, eta ez lanorduengatik bakarrik, baita buzo barik —hau da, kaleko jantzita— lan egiten dutelako ere. Ofizinetek, berriz, ez dute beren aldetik ezer egiten haien gorrotoa baretzeko. Halatan, ez dago komunismorik klase-diferentzia hori ezabatuko duenik. Zuk langileriaren aldeko apustua egin duzu eta haien neke eta arazoek kezkatzen zaituzte, eta niri ondo iruditzen zait noski, baina ez ahaztu kontaduria burua zarela, eta neurri batean behintzat, euren etsai.

Hik azoka nahiago hukeen arren, hemen jendeak plaza esaten dik. Ustekabean harrapatzen haute beti eibartarren erderismoek. Edonola ere, atsegin duk populuaren antiakademizismorako joera. Garai batean asaldatu egingo hintzateke txorakeria horregatik. Ordea, purismoaren bolada pasea duk zorionez, nahiz oraindik makina bat puritano ikusten duan bazterretan. Gehiegi, aukeran. Plaza gaur itxita zagok. Astelehena duk noski. Haren aurretik pasatzean, Riberako merkatua etorri zaik gogora, han Zazpi Kaleetan, eta hura ere itxita egongo dela egiten duk hausnar. Eta Riberako azokatik hire alaba Nerearengana alde egiten dik gogamenak. Gajoak gau txarra pasa dik benetan. Zer ote? "Apendicitis" entzun uste diok goizean Meliri. Ez ahal da ezer larria izango!

Ostatu aurreko semaforoak gorritik berdera egin zain hagoela, izerdi tanta bat osatu zaik bekokian, eta eguzkia gaur zoko guztietaraino sartuko dela egin duk gogoeta. Baita Rocandionekoa bezalako satorzuloetaraino ere. Gabardina erantzi duk hantxe espaloian, ostatura iristeari itxaron gabe. Eguzki beroak edota sargoriak ez hau sekula larregi molestatu, baina gaur kristoren ajea daukak, eta halako egunetan badakik ohiko bizimodua egite soilak egundoko lanak ematen dituena. Gabardina maleta gainera bota, semaforoa gurutzatu eta beste espaloira ailegatu bezain pronto, ostatuko ugazandrearekin egin duk topo atarian.

—Egunon, Gabriel. Etorri al zara? —Ugazandrea, giltzak eskuan, erdi ilunetan, atari barruan dagoen beste ate bat irekitzen saiatzen ari duk—. Eutsiko al diozu ateari mesedez? Orain ere argirik gabe gaude portalean.

—Egunon, Maritxu. Bai, etorri naiz, baina kafe bat behar dut lehenbailehen, ni izango baldin banaiz. —Portaleko kanpoko ateari eusten diok, Maritxuk tabernako atearen sarraila aurki dezan.

—Segituan. Segituan. Oraintxe nindoan irekitzera taberna. Utzi maleta eta gainontzekoak hemengo sarreran. Nire alabak igoko dizkizu gelara. —Jada taberna barruan zarete biok. Maritxuk argiak isiotzen dizkik, eta kafetera ere bai.

—Eskerrik asko, Maritxu. Uste dut bidaiarekin erdi mareatuta nagoela. —Tabernako kiratsak goragalea ematen dik. Zorabioa egingo zaik, laster esertzen ez bahaiz.

—Trankil, gizona. Kafe egin berria pattar pittin batekin eta beste gizon bat izango zara. Ikusiko duzu. Neu ere inoiz baino beranduago nabil. Atzo hemen egon bazina eta hemengo saltsa ikusi bazenu, esango zenuke. Goizeko ordu

bietan ere artean jendea kantuan kalean, ezin erretiratuta. —Maritxu sillak zutik jartzen ari duk. Pertsiana jaso duenean, kanpoko argia sartu duk.

—Zer dela-eta? Ez zituzten ba San Juanak aurreratuko? —Kanpoko leihoa ireki eta haren ondoan eseri haiz, taberna barruko lixiba usainetik ihesi.

—Batek baino gehiagok pentsatuko zuen hori, aizu, haiek ere gainean ditugu eta. Non nahi duzu kafea, kikanan ala katiluan? —Maritxuk amantala janzten dik hik erantzun bitartean.

—Katiluan, faborez. —Zurbil hago. Tailerretako sirenak orroka hasi dituk, zeinek aldarri handiagoa egingo. Gero eta gaizkiago sentitzen ari haiz.

—Alfako sirena. Zortziak laurden gutxiago, beraz. Zer moduz emaztea eta alabak?

—Hainbestean. Nerea, nagusia, larri samar dabil. Meliren ustez apendicitis izan daiteke. —Larri dagoena heu haizela esatekotan egon haiz.

—Hori ere ba al dugu? Jesus, Jesus! Ume gajoa! Hemen ere gaur batek baino gehiagok gaizki ibili behar du. Gaur tailerretan jendeak egarri ederrak pasa behar dituela iruditzen zait. Eta ez kanpoko beroagatik bakarrik prezisamente. —Ugazandreak, irribarrez, katilukada kafe bero ekarri dik mahaira. Hurrena mostradore ingurura bueltatu duk.

—Zergatik ba? —Gogorik gabe egin duk galdera. Ez dakik ezta entzun dian ere.

—Promozioa, gizona! Ez al zinen akordatzen? Aste guztian ez da beste konturik izan barren. Azkenean, hainbeste urte eta gero, Bigarren Dibisiora igotzeko moduan gara. —Ugazandreaken hitzetan kexa kutsua antzeman duk, hire ezjakitea iraingarri balitzaio bezala.

Baina hi ez hago Eibarko Sociedad Deportivaren balentriekin emozionatzeko, are gutxiago haren aldeko leloak kantatzeko. Premia larriagoa daukak orain, katilu erdia hustua duenean, zergatik eze halako su bat nabaritu baituk barrenean, tripa guztiak irakiten jarri dizkiana. Ahal bezain azkar jaiki haiz, eskuez sabelari eusten dioala, eta korri egin duk komunera, deabru guztiak atzean bahitu lez. Sila hankaz gora geratu duk, eta mahaia herren. Maritxu, zer egin ez dakiela, hik botatako silla zein hondatutako mahaia zuzentzen ari duk. Hik bien bitartean botaka egin duk. Azkar eta oparo. Eta eskerrak dena zuzenzuzen komuneko zuloatik joan den. A zer lotsa, bestela! Han joan zaik dena, atzo edan huan eta edan ez huan guztia. Une batez, heure erraiak ez ezik heure burua eta heure bizitza osoa ere ikusi dituk komun-zuloan behera: whiskya, tertuliak, familia, poesia, Jaungoikoa, Ama Birjina y la madre que les pario. Ez duk trago ederra izan. Beste aldi batzuetan baino arinago joan duk, halere. Arnasa hartu duk sudurretatik behin, bi, hiru, lau aldiz. Betaurrekoak kendu eta eskuak eta aurpegia garbitu dituk. Orain bai, orain beste gizon bat haiz.

—Beharbada kafea barik kamamila hartu behar zenuen. Ez al duzu hala uste? Zer diozu? Kamamila prestatzea nahi al duzu? —Maritxuren ahotsa baltsamoa bezala duk hire barren zaurituan.

—Mila esker, Maritxu, baina nahiago ez. Gerotxoago akaso. —Komunetik bueltan lehengo tokian eseri haiz, kanpora begira, heure burua leihoko beiratearen kontra bermatuz.

Higandik hurbil, leihoaz bestaldean, behargin mordo bat lanera bidean. Denak arrapaladan, denak gizonezko. Batzuk bina edo hirunaka, bestetzuk bakarka. Euren pausoa bizkorra duk, eta espaloietatik ez ezik erdigunetik ere saiatzen dituk, autoen artetik ibiliz. Semaforoan inork ez dik argi-kolorerik errespetatzen. "Lehenengo pasa eta gero begiratu" bezalako jokabideak nagusi. Autoek, berriz, oinezkoen lehentasuna onartu beste erremediorik ez. Beste alde batetik, beharginen arropen erreparatu eta euren janzkera oso arrunta iruditu zaik. Modestia hitza etorri zaik gogora. Nahiz kaleko jantziak izan, urdin mahoizkoa eta errauts kolorearen arteko tonuak ugari. Detaileak barrenbarreneraino sartzen zaizkik, hunkituta hago, eta bat-batean idazteko gogo zoro bat erne zaik. Poetaren makinaria martxan jarria duk. Titulua asmatua diok jada balizko poemari: Goizean lantegira. Begiak bildu dituk taberna barrura. Bakarrik haiz tabernan, ugazandrea ere desagertua baita norabait. Kaleko zarata eta barneko isiltasuna. Kontrastea. Seinale ona deritzok, izan ere kontrastea askotan izan duk hiretzat inspirazio iturri, eta halatan, idatzkoadernoaren bila altxa haiz hire lekutik.

Une horretan, ordea, Maritxu agertu duk kanpoko atean, periodikoa eskuan duela eta haren lehen orria seinalatuz.

—Begira, begira hemen. Lehen orrian, fotografia eta guzti. —Maritxuk hire ondoraino etorri eta mahai gainean uzten dik Hoja del Lunes-aren ale bat, ziurrenik Bilbotik trenean hirekin etorria.

—Arrazoi osoa duzu, Maritxu. Baina kontuz, ez dezagun azeria ehizatu aurretik larrutu. Hemen esaten duenez, atzoko partidua joanekoa izan zen. Beraz, oraindik itzulikoa falta da, ezta? —Ez daukak ugazandrearekin muturtzeko inolako asmorik. Are gutxiago, futbola bezalako huskeria batengatik.

—Noski. Baina zuk uste duzu 2-0 bat jaso daitekeela? Nik ez. Gainera, non demontre dago Constancia de Inca hori? Nondarrak dira gure kontrario horiek? Zuk ba al dakizu, Gabriel?

—Ez, Maritxu. Arrastorik ere ez. —Gezurra esan diok, izan ere haserretzen hasia hago, ez hainbeste ugazandrearekin, nola heure buruarekin. Idazteko gogo guztiak aienatu zaizkik eta ajearen zama nozitzen duk osteria lepondoan. Beste poema bat jaio baino lehen hila; beste poema abortu bat pentsatzen duk jarraian—. Maritxu, badakizu gauza bat? Orain bai hartuko nukeela gustura kamamila.

—Horrela gustatzen zait niri. Segituan ekarriko dizut.

Alferrikaldutako poemarena ez zaik guztiz ahaztu, baina jada ez zagok itzulbiderik. Ez daukak indarririk. Besterik ezean, gainbegiratu bat egiten diok periodikoari, nahiz aurrez badakian Hoja del Lunes-en futbolaz landako berririk ez dagoela. El quinqu Eleuterio Sánchez se fuga de un tren en marcha a 70 k/m en Palencia. Teatro Artagan: Rafael Farina. El eibarrés Jose Eulogio Garate ficha por el Atletico de Madrid. Cine Urrutia: El apartamento. Mayores de 18 años. Programa de actos y festejos con motivo del xxix aniversario de la Liberación. Club Aránzazu: Raphael, 16 y 17 de junio. Nazka-nazka eginda amaitu duk periodikoarekin. Eskerrak Maritxu badatorren higanantz kamamila eskuan duela.

—Aizu, Gabriell. Lehen ahaztu egin zait esatea. Atzo San Martin hemen izan zen eta pakete bat laga zuen zuretzat. Tori. Akordatu ere ez dakit nola egin naizen, hemen egon zen zalapartarekin.

—Eskerrik asko, berriro ere.

Pare bat zurrut aski, kamamilak on egiten diala konturatzeko. Hala ere ez hago umoreko. Periodikoak sarritan ateratzen hau heure onetik eta gaur ere halaxe gertatu duk. Erdarazko hiruzpalau adjektibo eskapatzen zaizkik ahopetik, bertako mezu eta diskurtsoa definitzeko: burdo, franquista, rancio, chismoso. Ez ote dago beste albisterik munduan? Jarraian, La Concordian ohikoa den esaera bat gogoratu zaik, garagarrilean periodikoa erostea alferrikakoa dela, Liberazioaren ospakizunak baizik agertzen ez direlako. Raphael, Antonio Machín, Marife de Triana, ministroren bat hitzaldia egitera, desfíleak, Pemán, Azorín, eta abar. España una, grande y libre. Kaka zaharra.

Edozein modutan hik ezin prentsari buruz larregi berba egin, Hierron kolaboratzen hasia haizenez gero. Apirilean bi artikulua argitaratu diate, hil honetan bat eta datorren hilean beste bat argitara emateko hitz egina haiz. Eta zergatik ez aitortu, pozik ikusten duk hire firma artikuluen oinean. Bestalde, inoiz ez haiz esker txarreko izan. Beraz, hobe periodiko kontuak alde batera utzi, kamamila edan eta lanera joatea.

Eta hala egin duk. Une batez tentatuta egon haiz Juanitoren kartazal handi hori zabaltzeko, baina tabernatik irten eta haizea hartzeko gogo tentazioa baino premiatsuagoa suertatu zaik. Eta aitzakia ere aurkitu diok hire lehentasunari: gutxi gora behera badakik zer aurkituko duan kartazalaren barruan. Nolanahi ere, ez duk eguerdia arte ezjakin egon nahi, eta heurrekin daramak lantokira, goizean zehar ireki eta barrukoa irakurtzeko betarik edukiko dualakoan. Maritxu agurtu gabe atera haiz, bezeroak atenditzen lanpeturik ikusi dualako.

Generalísimo. Hori ere baduk, ba, herriko kalerik printzipalenari izena jartzeko postura. Edozeinek entzunda ere, Non bizi haiz? Generalísimoan. Barregarria, egia ez balitz. Ostatutik irtenda, erreka bideari lotu hatzaio, hots, Generalísimotik Bidebarrietara eta handik Plaza Urquizura. Baina non zagok hemen erreka? galdetu hion Juanitori halako batean. Gure azpian ihardetsi zian berak, eta hik ez-ulertuarena egiten huanez, ubideari jarraituz ibilaldia egitera gonbidatu hinduen. Juanitok irakasle papera bereganatu eta aldian behin galderak egiten zizkian ilustrazio gisara.

—Zer izen zaukak taberna horrek?.

—Ego-gain.

—Eta beste horrek?

—Ariatza.

—Ez zaukaguk ikusterik, baina egon bazagok. Hiruzpalau toponimok salatzen ditek.

Plaza Urquizun Txontara desbideratu haiz, eta bederatziak puntu-puntu sarrera egin duk Rocandionean. Heure bulegoan sartu eta lanari ekin diok adoretzu. Harrituta hago heure buruaz. Noiz arte iraungo dik adoreak? Zorionez ez duk inor sartu bulegora denbora guztian, ezta ugazaba bera ere, eta hori laguntza duk lasai lan egiteko orduan. Hamaikak aldera heu joan haiz ugazabaren bila. Kafe bat hartzera atera behar duk Agiñazpira, bestela hil

egingo haiz, eta jakinaren ganean jarri nahi duk. Ugazaba, ordea, kanpoan nonbait, arratsaldea arte ez omen duk azalduko. Ederto. Agiñazpitik bueltan heure bulegoan sartu haiz ostera, eta inork ez hauela molestatuko ziurtaturik, mahaira eseri eta Juanitoren paketea zabaldu duk.

Pentsatu bezala, paperak. Euskaltzaindiko azken bileraren akta, Tomas Meaberen itzulpenaren probak eta Zeruko Argiaren aste honetako zenbakia. Ez daukak gogo handirik irakurtzeko, eta gauzak batzen hasi haiz. Une horretan, ordea, paper pusketa bat agertu duk, eskuz idatzia. Berehala ezagutu duk Juanitoren letra: Kaixo Gabriel. Ostatuan nagok. Hemengo buila zoratzeko modukoa duk. Ditosozko futbola! Hemen uzten dizkiat joan den astean agindutako paperak, eta sorpresatxo bat, Zeruko Argiaren azken zenbakia. Disfruta ezak. Ziurtzat ematen diat bihar iluntzean, astelehenero bezala, gurera azalduko haizela. Bihar arte, beraz.

Juanitok sorpresatxo bat esaten badik, zerbait gehiago izango dena badakik. Ezagutzen duk horrenbeste. Zeruko Argia zabaltzen duk eta orriz orri eta artikuluz artikulua irakurtzen duk. Batez ere Basarriren artikuluari erreparatu diok, gorabehera batzuk izan baitzenituzten garai batean, baina ez, ez dik hire kontra ezer esaten. Hala habilela, zazpigarren orrira ailegatu haiz, Gazte Naiz orrira. Hiru artikulua. Izenburuak irakurri eta zuzenean hoa bigarreneira: "Euskal Literatura eta abar". Firma: Ibon Sarasola. Susmoa hartu diok hor ote dagoen sorpresatxoa. Artikuluaren amaiera aldean hire izena ikusi duk idatzita, eta zuzenean jo duk bertara, hitaz zer dioen jakitera: Bukatzeko, "Harri eta herri"ri buruz zerbait hitz-egitea nahi dut. Danok gogoratzen degu atera zuen zarata. Orduz gero "idazle txar baten liburu debekatua" da euskaldun askorentzat. Euskaldun gazte askok ez dute ordea hola pentsatzen. Donosti'ko Biblioteka probintzialera joaten naiz estudiatzera. "Harri eta herri" da han estudiatzen duten unibertsitarioak ateratzen duten euskal liburu bakarra. Ba dira unibertsitarioak euskal literaturan liburu hau bakarrik ezagutzen dutenak. Euskara jakin gabe liburu hau erosi duten unibertsitarioak ere ezagutzen ditut. Norbaitek euskal literaturaz zerbait galdetzen badit, "Harri eta herri" lagatzen diot. Orain arte, harrituta gelditu dira danak, ez baitzuten uste euskal literatura maila horretara iritsi zenik. Hauek guztiak ez dira hitz edo iritzi: Errealitateak dira. Zeren, "Harri eta herri", sortzen ari dan Euskal herri berri batek merezi duen lehenengo liburua da.

Negarrez hago, Gabriel Aresti, eta ez dik axola inork ikusterik. Malkoei eusten saiatu haiz, baina azkenean barrenak gainezka egin dik. Negarrez hago, arrantzaka, eta ez dik batere axola inork entzun diezaan. Sudurzapia atera eta mukiak kendu dituk. Horrelako laudorioak ez dituk egunero entzuten, alajaina. Ajeak ere izango zian zerikusirik negar-arpulu horietan. "Eskerrik asko Ibon. Zuek gazteok (Ibon, Ramon, Mikel, Rikardo, Lourdes,...) zarete nire esperantza guztia" esaten diok barruko ahotsarekin. Paper guztiak batu eta kartazal handian sartu dituk ostera. Iluntzean ezingo haiz esku hutsik agertu Juanito eta Mari Pazenean. Hau ospatu beharra zagok.

Zerbait falta zaik, ordea, eta ez duk asmatzen zer den. Bola bat estomagoaren erdi-erdian. Guztiarekin, badakik fisikoa ez dena, eta horrek sentimenduetara eramaten hau. Bat-batean argia egin zaik. Meli! Hire emaztearekin hitz egiten ari haizela ohartzen haiz. Berari adierazi behar diok jazotakoa. Zeruko Argia atera duk zorrotik. Idazluma eta papera hartu eta idazteari ekin diok: Querida Meli / Te copio esto de Zeruko Argia. Naturalmente



me ha emocionado y halagado. Bueno hasta el miércoles. Te quiero más que nunca. Besos a las nenas y a ver si a Nerea la veo el miércoles. Gabriel.

Kartazal batean sartu eta kalera atera haiz. Hamabiak bost gutxiago. Plaza Urquizura heldu eta duda egin duk Arragüetatik ala Bidebarrietatik jo. Kartazala jakaren barruko patrikan daramak, bularraren kontra sentitzen duk. Errekaren bidetik joatea erabaki duk. Eta martxan jarri aurretik, hiru kolpe gogor jo dituk zapata takioz asfaltoan, "Hi, Ego, lasai, bazekiat-eta hor haizela" hire artean esanez.